



ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA

KULTURA ZERBITZUA

www.aranguren.es



KULTUR JARDUEREN AGENDA



ANTOLATZAILEA

LAGUNTZAILEAK

Casa de Cultura
del Valle de Aranguren



Kultur Etxea
Aranguren Ibarra

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



FAMILIAN

URRIAK 17, 18:00
"SALVEMOS LOS CUENTOS" ANTZERKIA

AZAROAK 1, 17:00 ETA 18:00
"CUENTO DE NAVIDAD (ENCAPSULANDO A DICKENS)" ANTZERKIA

AZAROAK 8, 17:00 ETA 18:15
"PACHAMAMÁ" HAUR TXIKIENDAKO ANTZERKIA

AZAROAK 14, 18:00
"MUSEUM: LA HISTORIA DEL ARTE PARA NIÑOS Y NIÑAS" ANTZERKIA

AZAROAK 22, 18:00
"WC" ANTZERKIA

ABENDUAK 13, 12:30 GAZTELANIAZ
ETA 18:00 EUSKARAZ
"ELARA, BIDAIA BAT IZARRETARA" ANTZERKIA

ZIKLOA: ANTZERKI AMATEURRA

URRIAK 16, 20:00
"AL MENOS NO ES NAVIDAD"

URRIAK 30, 20:00
"IN-VISIBLES"

AZAROAK 20, 20:00
"DESCANSE EN PAZ... ¡QUIEN PUEDA!"

ABENDUAK 11, 20:00
"NO ME DA LA VIDA"

ADI, HONA HEMEN SARRERAK SALTZEKO DATAK

SALMENTA AURRERATUA ARANGUREN IBARREAN
ERROLDATUTAKOENTZAT ETA SALMENTA-SISTEMAN ALTA EMANDA
DAUDENENTZAT, IRAILAREN 24AN, 10:00ETAN.

IRAILAREN 24TIK 25ERA, ERROLDATUENTZAKO SARREREN SALMENTA BAIZIK EZ.
SALMENTA OROKORRA IRAILAREN 26TIK AURRERA, LARUNBATA, 10:00ETAN.

SARRERA ZENBAKIDUNEN SALMENTA

Auditorioan sartzen diren pertsona guztiek toki bana hartuko dute (umetxoek ere bai. Hau da, umetxoak ere kontuan hartzen dira edukiera kontrolatzeko, indarrean den segurtasun araudiarekin bat). Gainera, ezin izanen da edukiera hori gainditu. 2/1989 Foru legea*.

GAZTE ETA HELDUENTZAT

IRAILAK 23, 19:00
"IRULEGITIK POMPELORA. HIRI BATEN SUSTRAIAK" LIBURU-AURKEZPENA

URRIAK 2 ETA 3, 19:00
"MENDIA" ANTZERKIA

URRIAK 11, 19:00
"PALABRAS MAYORES" ANTZERKIA

URRIAK 18, 19:00
"ATRA BILIS" ANTZERKIA

URRIAK 25, 19:00
"LA REINA BRAVA" ANTZERKIA

AZAROAK 15, 19:00
"TORCIDXS" ANTZERKIA

AZAROAK 29, 19:00
"SENSACIÓN TÉRMICA" ANTZERKIA

ABENDUAK 12, 19:00
"EGUBERRIETAKO KONTZERTUA" AHOTS BIHOTZAK ABESBATZA

ABENDUAK 20, 19:00
"A KUPELA" MUSIKA

ERAKUSKETAK

"PIRINIOETAKO HIZKUNTZAK" URRIAREN 1 ETIK 29RA
"D- LETRAS, LEE EN VERANO" (ARGAZKIAK)
AZAROAREN 2TIK 15ERA

LEIHATILA

Leihatila: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.
Ekitaldiaren eguna: ekitaldia hasi baino 30 minutu lehenago.
Internet: www.aranguren.es/cultura
INFO+: 948 29 14 89

→ AURKEZPENA

"IRULEGITIK POMPELORA. HIRI BATEN SUSTRAIAK"

Liburuaren aurkezpena eta hitzaldia


 **Irailak 23, asteazkena**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **SARRERA LIBREA**

 **Aurkezpena: Aranzadi Zientzia Elkarte**



Pompelo hiriaren 2.100. urteurrenaren harira, dibulgaziozko liburu bat argitaratu da Irulegiko aztarnategia abiapuntutzat hartuta.

→ ERAKUSKETA

"PIRINIOETAKO HIZKUNTZAK"

 **Urriaren 1etik 29ra**

 **Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **SARRERA LIBREA**



Euskaltzaindiak antolatuturik, erakusketak honek Pirinioetako mendien inguruko hizkuntzen ezaugarri nagusiak eta mugarri historikoak nabarmentzen ditu. Bineta argi eta ilustratuen bidez, ikusleek bertatik bertara ezagutuko dute mugako eskualde honetako hizkuntza-aniztasuna. Izan ere, hizkuntzak elkarrekin gurutzatu dira mendeetan zehar, elkarri eragin diote eta elkarrekin egin dute aurrera.

Antolatzailea: Euskara Zerbitzua

→ ANTZERKIA

“MENDIA” • Mikele Urroz Zabalza eta Iñigo Rodríguez-Claro

Urriak 2,
ostirala
(euskaraz)
eta urriak
3, larunbata
(gaztelaniaz)


19:00

GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA

7 €

70 min

Antolatzailea:
Berdintasun eta
Euskara Zerbitzua



Mendi oro kolpe batetik sortzen da, talka bortitz batetik, indarren arteko topaketa katartiko batetik. Antzezlan honek mendiari uko egin zion alpinista baten krisia kontatzen du, eta senitarteko baten erraustak uzteko bertara itzuli behar duenean hasten da. Zer gertatzen da gure identitatearen zatiak ukatzen ditugunean? Gure zein zatik hil behar du beste berri bat jaio dadin? Nola esan agur maite dugunari?

→ ANTZERKIA

“PALABRAS MAYORES” • Alex O’Dogherty

Alexek jada ez ditu hitzak neurtzen. Orain, beste zerbait egiten du: hitz larriz mintzo da

Urriak 11,
igandea

19:00

GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERAS

7 €

100 min



Alex O'Dogherty-k ez du ahoan bilorik. Neurritasuna galdu du, eta, orain, gai da edozertaz hitz egiteko: bere txakurraz zein bere hiletaz, edo baita asmo oneko naziez ere. Une harrigarrietako txantxez, gauza guztien abiaduraz, adimen artifizialaz eta are xalalailoez ere. Rap bat eginen dizu, edo erromantze bat kantatu, eta badu emanaldi berezi bat berandu iristen direnentzat ere. Den-dena dauka.

→ ANTZERKI AMATEURRA

“AL MENOS NO ES NAVIDAD” • Primera fila y centrado

Emakumeak protagonista dituen komedia bat, adinekoen bakardadearen arazoari ikuspuntu positiboz heltzen diona

Urriak 16,
ostirala

20:00

GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA

4 €

80 min



Kontatzen duen egoera hagitx dramatikoak izanik, egileak komedia bat egitea erabaki zuen, doinu ironikoz eta sinesgogor, adinekoek egunerokoari aurre egiteko duten jarreraren antzera, zoritxarrak zoritxar eta arazoak arazo ilusioari eutsiz.

→ ANTZERKIA FAMILIAN

“SALVEMOS LOS CUENTOS” • Iluna Producciones

Ipuinen mundua arriskuan dago

Urriak 17,
larunbata

18:00

ADIN GUZTIE-
TARAKO JAR-
DUERA (ADIN
GOMENDATUA:
4 URTEK
GORA)

4 €

55 min



Zenbait pertsonaia gauza arraroak egiten hasi dira. Haurrek ipuinak irakurtzeari uzten badiote, pertsonaiak ezabatzen dira. Desagertzen dira! Gretelek, ipuinen detektibeak, ipuin tradizionalik ezagunenetan barrena eramanen gaitu, ipuinak salbatzeko. Abentura bat irudimenez, ipuinez, misterioz, kantaz eta dibertimenduz bete.

→ IPAR ESZENA BIDEA ANTZERKI-PROIEKTUA

“*ATRA BILIS*” • Hilo Producciones

Sari anitz jaso dituen komedia beltza, hagitz beltza, kutsu fratrizida, homizida, katuzida eta -zida amaiera duen edozer gauzaren kutsua duena

 **Urriak 18, igandea**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **7 €**

 **90 min**

 camino escena norte



Adineko lau emakume, herraz eta saminez beterik, Nazaria Alba Montenegroren senarraren beilan elkartuko dira gau ekaiztsu batean. Giro aproposa sortuko da solaserako, eta hala etorriko zaizkie oroitzapenak, desamodioak, sekretuak eta gorroto ezkutuak, trumoiekin batera. 2026ko Oh! saria kategorian hauetan: ikuskizunik onena, zuzendaririk onena, emakumezko aktorerik onena eta jantzirik onenak.

→ ANTZERKIA

“*LA REINA BRAVA*” • Las niñas de Cádiz

Sátira política, drama histórico y chirigota

 **Urriak 25, igandea**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **7 €**

 **80 min**



Hona hemen magnizidio baten istorioa. Denek gorrotatzen duten baina inork aurre egiten ez dion erreginaren hilketa. Ama batek, mendeku-egarriak bultzaturik, arau guztiak hautsi eta inongo errukirik gabe hilko du bere alabari bizitza hondatu dion emakumea. Gero etorriko dira zalaparta, aztoramena, denek gezurra esanen duten epaiketa lotsagarri bat, eta ahanzturaren zigor ankerra.

→ ANTZERKI AMATEURRA

“*IN-VISIBLES*” • Ventura Ruiz

Hiru emakumek ihes egingen dute ikusezin bihurtzen dituen orainalditik

 **Urriak 30, ostirala**

 **20:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **4 €**

 **60 min**





Zahartzea hagitz gogorra izaten ahal da denboraren joanak pixkanaka deuseztatzen gaituela sentitzen dugunean. Produktibitatea lehenesten duen gizarte batean, adineko pertsonak arbuaiatuak eta diskriminatuak dira, batik bat emakumeak. Ez da erraza adinean gora egitea, mendekoa izatea edo nork bere etxea utzi behar izatea.

→ ANTZERKIA FAMILIAN

“*CUENTO DE NAVIDAD (ENCAPSULANDO A DICKENS)*”

• Coma14/Société Mouffette

2025eko MAX saria familia-ikuskizun onenari. 2024ko FETEN saria literatur egokitzapen onenari. Drac d'Or saria familia-ikuskizun onenari

 **Azaroak 1, igandea**

 **17:00 / 18:30**

 **ADIN GUZTIE-TARAKO JARDUERA (ADIN GOMENDATUA: 6 URTEK GORA)**

 **4 €**

 **40 min TOKI KOPURU MUGATUA**



Scrooge jauna agure marmarti bat da. Ez daki zer diren errukia eta karitatea, ozpinduta dago, eta bihotza harria bezain gogorra du, Eguberrietan ere biguntzen ez diren horietakoa. Espero gabe, laster jasoko du hiru espirituren bisita, eta haiekin batera abiatuko da bere haurtzarora, orainaldira eta etorkizunera, bidaia argigarri batean. Bidaian zehar aurkituko duenak bizitza aldatuko dio.

 **Sendaberri**
Nuevos paisajes escénicos
Paisajes escénicos nuevos

→ ARGAZKI-ERAKUSKETA

“D-LETRAS LEE EN VERANO”



**Azaroaren
2tik 15era**



**Astelehenetik
ostiralera**
10:00etatik
13:00etara eta
17:00etatik
21:00etara




**GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA**



**SARRERA
LIBREA**

Antolatzailea:
D-Letras elkarte



Sormen eta zabalkunde artistikoa sustatzeko asmoz, D-Letras kultur elkarteak lehen argazki-lehiaketa antolatu zuen, elkartearen 2026ko jardueren agendaren barnean. Lehiaketaren emaitza gisa, erakusketa batean ikusgai izanen dira aurkezturiko lanetako batzuk.

→ ANTZERKI-PROPOSAMENA + EZTABAIDA

“SANAGI.11” • Yolanda Montero eta Montse Zabalza



**Azaroak 6,
ostirala**



19:30



**GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA**



90 min
DOAKO SARRERA
ARETOA BETE
ARTE

Antolatzailea: Gizarte
Zerbitzuen Alorra



Gizarteak funtsezko zeregina du nerabeen formazioan, eta, ildo horretan, SANAGI.11 antzerki-formazioa dakargu, artea eta gogoeta uztartzen dituen ekimen bat. Proposamenak bi fase ditu: lehenbizi, antzezlan bat ikusi, eta, gero, eztabaida eta gogoeta taldean, ikusleek beren kezkak partekatu eta suizidioa prebenitzeko estrategiak ikas ditzaten psikologo baten laguntzaz.

→ NIRE LEHEN IKUSKIZUNA

“PACHAMAMÁ” • Baraka Teatro

Hitzik gabeko antzerkia ahots propioarekin. Objektu-antzerkia haur txikiendako



**Azaroak 8,
igandea**



17:00 eta 18:15




**HAUR TXIKIEN-
DAKO JAR-
DUERA (ADIN
GOMENDATUA:
36 HILABETE)**



4 €



40 min



Pachamamá sostengua ematen digun ama lurra da, bizitzari eta ametsei eusten diena. Udaberrian iratzartzen da, Latinoamerikan, haizearekin, izaki hegalariekin eta loreekin. Berotasuna ematen digu udan, Afrikan, lehoiaren orroa eta intsektuen kantua entzuteko. Udazkenean, festa-soinekoa janzten du, Asian, eta suge eta paumen kolore artean dantzatzen gara. Eta, neguan, Antartikan, berriz lo hartzen du, aurora borealaren, izarren eta den-dena estaltzen duen mantu zuriaren azpian...

→ ANTZERKIA FAMILIAN

“MUSEUM: LA HISTORIA DEL ARTE PARA NIÑOS Y NIÑAS”

• La liquida Teatro

Hurbiltasuna, interakzioa eta umorea uztartzen dituen antzerki-esperientzia bat



**Azaroak 14,
larunbata**



18:00



**ADIN GUZTIE-
TARAKO JAR-
DUERA (ADIN
GOMENDATUA:
4 URTEK
GORA)**



4 €



55 min



Bidaia zoragarri bat maisu handien artearen historian barrena: Picasso, Van Gogh, Velázquez, Miguel Ángel, Da Vinci... Maistra handiak ahanzi gabe, jakina: Tamara Lempika, Sofonisba Anguissola, Frida Kahlo...

➔ ANTZERKI GARAIKIDEA

“TORCIDXS” • Las Nenas Theatre

Performancea, inprobisazioa, testua, lotsagabekeria eta freskotasuna

 **Azarook 15, igandea**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **4 €**

 **90 min**

Bukatzean, salalaldia ikus-entzuleekin

 **Sendaberri**
Nuevos paisajes escénicos
Paisaje escénico berriak



Tokiz kanpo dauden divak, artista martiritatuak, birtuosismo zalantzakoa. Autotunearekin ere desafinatzen duen abeslari bat. Lau lagun interakzioan arituko dira gorputz bat den antzokiaren mekanismoekin: gatazka-eremu batean daude. Konpainia gazte baten lehen lana. Aktoreek direnaz bestelako zerbait izateko nahia gorpuzten dute, eta horrek epai eta identitate saltsa ederra ekarriko du: dena apurtuko da eta porrota ospatuko dute.

➔ ANTZERKI AMATEURRA

“DESCANSE EN PAZ... ¡QUIEN PUEDA!” • Teatreo Espontáneo

Teatro Espontáneoaren tailer bat elkar ezagutzen ez zuten ama batzuentzat

 **Azarook 20, ostirala**

 **20:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **4 €**

 **80 min**

 **Teatreo Espontáneo**
Taller de Teatro Espontáneo de Madres Que No Se Conocían de Niada
presenta



Sendategi edo aldi baterako egonaldietarako toki honetan, azaltzen zailak diren anomaliak gertatzen ari dira. Han bizi eta lan egiten dutenak beren “arazotxoak” konpontzen saiatzen dira, hurrengo pantailara igarotzeko. Ez ote da izanen konpondu gabeko kontu batzuek blokeatzen dituztela pertsona horien aurrerapenak? Azkenean, gertaera sinestezin bati esker, gauzak bere onera etorriko dira... Edo ez?

➔ ANTZERKIA FAMILIAN

“WC” • David Cebrián (Zirku-Antzerkia)

Ekitaldi bakarreko komedia ez-eskatologiko bat water-closeterako eta clowna

 **Azarook 22, igandea**

 **18:00**

 **ADIN GUZTIETARAKO JARDUERA**

 **4 €**

 **55 min**

Antolatzailea:
Naturgunea



Komedia absurdo eta barregarri honek komunetik inongo neurririk gabe itsasora botatzen ditugun plastikoen eta bestelako substantzien kutsaduraz dihardu. Clownaren hizkuntza poetikoa erabiltzen duen ikuskizun bat da WC, keinuak eta zirku-teknikak uztartuz komedia sortzen duena. Ez galdu adin guztietarako zirku harrigarriaren erakustaldi hau.

➔ ANTZERKIA

“SENSACIÓN TÉRMICA” • K Producciones

Errepikatu ez daitezen kantatu eta kontatu beharreko istorioen soinu-banda

 **Azarook 29, igandea**

 **19:00**

 **GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA**

 **7 €**

 **90 min**



Lucía ikasle gazte bat da, eta etxeko giro bortizetik ihes egin eta beste herrialde batera aldatu da. Han, Almarekin bizi da, haren etxean, eta aurrera egiteko trikimailuak erakusten dizkio. Juliana ezagutzen duen, haren alaitasunak eta grinak argia egiten du Lucíaren bizitza berriaren gainean. Baina Julianak harreman bortitz bat hasiko du, eta Lucíari, bere laguna nola aldatzen ari den ikustean, bidera aterako zaizkio haurtzaroz geroztik atzetik dabilzkion tratu txarrak. Maitasunaren izenean onartzen eta justifikatzen dugunaren ispilu bat.

➔ ANTZERKI AMATEURRA

“NO ME DA LA VIDA” • Camino Escénico

Komedia musikal dibertigarri bat

Abenduak 11,
ostirala

20:00

GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA

4 €

90 min



Pedro, erretiroa hartu duen gizon gainesplotatu bat, ministerio batera joanen da laguntza eske, eta, denbora gutxian, jende estresatua, txakur xarmagarri bat eta AA ez oso ulerkor bat gurutzatuko zaizkio bidean. Oinez eta lasai, umorez, abestiak eta errimak eginez eta irudimen handiz aurre eginen die gestio guztiei, harik eta, ilunabarrean, antzoki batera iristen den arte. Han, gizaki gisa duen esperientziak proposamen hagitz errealista baten itxura hartuko du.

➔ KONTZERTUA

“CORAL AHOTS BIHOTZAK” (Musika-eskolarekin elkarlanean)

Abenduak 12,
larunbata

19:00

ADIN
GUZTIETARAKO
JARDUERA

DOAKOA,
AURREZ
GONBIDAPENA
HARTUTA



Aurten ere, proposamen gozagarria dakarkigu Ahots Bihotzak abesbatzak Eguberrietarako, Lino Ortano musika-eskolako haur-abetesatzarekin batera.

➔ ANTZERKIA FAMILIAN

“ELARA, UN VIAJE A LAS ESTRELLAS” • Mar Mar Teatro

Omenaldi bat familiako aitona-amonei, gure seme-alaben zaintzaile nekaezin horiei

Abenduak 13,
igandea

12:30 Gaztelaniaz
18:00 Euskaraz

ADIN GUZTIETARAKO
JARDUERA
(ADIN GOMENDATUA: 4 URTETIK
GORA)

4 €

50 min



Elarak goizegi ezagutuko du galera hitzaren esanahia. Bere gertuko norbait izarren hauts bihurtuko da. Galaxiak eta planetak zeharkatuz, bidaia espazial bezain espeziala egingo du bizitzaren zentzua ulertu nahian, horretarako dolauren faseak (eta desfaseak) zeharkatu behar baditu ere.

➔ KONTZERTUA

“A KUPELA” • Demode Quartet

Show dibertigarri eta arin bat soinu-kalitatez betea

Abenduak 20,
igandea

19:00
Gaztelaniaz eta
Euskaraz

GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA

7 €

75 min



Demode Quartet taldeko lau pertsonaia xelebreek, musika ulertzeko duten modu dibertigarri eta bereziarekin, garai guztietako abesti ezagunen errepasoa egiten dute, beren euskarazko bertsioak a cappella eskainiz. Gai bakoitzaren atzean dagoen istorioaren inguruko teoria eta pasadizo dibertigarri edo harrigarriekin aurkeztuko dizkigute beren kantak.

HELDUENTZAKO ZAHARBERRITZE ETA PINTURA-IKASTAROAK

AURREINSKRIPZIOA 948 012012 ZENBAKIRA DEITUTA EDO

<https://inscripciones012.navarra.es>

HELBIDEAN ERROLDATUAK: IRAILAK 21 ETA 22

EZ-ERROLDATUAK: IRAILAK 23

- ➔ Eskari gehiago badaude erroldatuentzako plazak baino, plazak zozketaz banatuko dira, eta Aranguren Ibarrean erroldatutako ikasleek izanen dute lehentasuna.
- ➔ Ikasle bakoitza gehienez ordutegi bakar batean aurreinskribatzen ahalko da jarduera bakoitzeko.
- ➔ Behin zozketa egindakoan, ikasleei jakinaraziko zaie, eta matrikula eta dagokion ordainketa egingen dira.



ZAHARBERRITZEA (100 ordu)

Erroldatuak: 180 €

Ez-erroldatuak: 360 €

2 epetan ordaintzeko aukera

ORDUTEGIA:

- | | |
|--------------------------|---------------|
| 1. taldea: asteazkenetan | 9:15 - 12:45 |
| 2. taldea: asteazkenetan | 16:30 - 20:00 |
| 3. taldea: ostiraletan | 9:15 - 12:45 |
| 4. taldea: ostiraletan | 16:30 - 20:00 |

Jardueraren hasiera: **Urriko lehen astea.**

Tokia: **Idoi plazako aretoak (Mutiloa).**

Irakaslea: **Gabriela Barrio.**



PINTURA (120 ordu)

Erroldatuak: 240 € / Ez-erroldatuak: 480 €

2 epetan ordaintzeko aukera

ORDUTEGIA:

- | | |
|-------------------------------------|---------------|
| 1. taldea: astearte eta ostegunetan | 10:00 - 12:00 |
| 2. taldea: astearte eta ostegunetan | 16:00 - 18:00 |
| 3. taldea: astearte eta ostegunetan | 18:00 - 20:00 |

Jardueraren hasiera: **Urriko lehen astea.**

Tokia: **Ibaialdeko aretoak (Mutiloa).**

Irakaslea: **Isabel Erro.**

PLAZA MUGATUAK. IKASTAROAK EGINGEN DIRA BALDIN ETA BEHARREZKO DEN GUTXIENEN IKASLE KOPURUA OSATZEN BADA.

KUOTAREN HOBARIK:

- ➔ % 50eko deskontua, 2026an edo aurreko urteetan 65 urte bete eta Aranguren ibarrean erroldatuta dauden pertsonentzat, betiere Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriak ez badu gaintzen familia-unitateko kide bakoitzeko lanbide arteko gutxieneko soldata.
- ➔ Hobari-eskaera 2025. urteko errenta-aitorpenaren kopia batekin egin beharko da.

ARANGUREN IBARREKO ANTZERKI-TAILERRA

Zure irudimena egia bihurtzeko leku bat bilatuz gero, bestelako bizitzak bizi eta milaka ikuspegi, sentsazio eta emozio gozatuko dituzu.

EMAN IZENA ANTZERKIAN!

.....



Tresnak ezagutu, ariketak egin, barre egin, hunkitu, eta gauza asko ikasiko ditugu.

Proiektu bat aukeratu eta ikasturte bukaeran estreinatuko dugu.

16 urtetik gorako gazte eta helduei zuzendua (Aranguren Ibarrean erroldatuentzat baizik ez).

Tokia: Aranguren Ibarreko Kultura Etxea
Prezioa: 25 euro, behin plaza esleitzen denean ordaintzeko.

A TALDEA:
Ordutegia: ostiraletan, 18:00etatik 20:30era
Hasi: urriak 9
Emanaldiak: martxoak 19, 20 eta 21
Irakasleak: Iratxe Uriz eta Leire Ruiz.

B TALDEA:
Ordutegia: larunbatetan, 11:00etatik 13:30era
Hasi: urriak 10
Emanaldiak: apirilak 23, 24 eta 25
Irakaslea: Fermín Carriñena.

Azken astean, obraren entsegu orokorrak egingen dira (20:00etatik 22:00etara, gutxi gorabehera), astelehenetik ostegunera, eta antzezpenak ostiraletik igandera.

Izen-ematea: Aranguren Ibarreko Kultur Etxeko arreta-mahaian edo 948 291 489 telefonora deituz, irailaren 22tik 25era, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera.

Izena ematean, aukeratutako taldea adierazi beharko dute ikasleek.

Plazak mugatuak dira, eta, eskaera gaintuz gero, zozketa bidez esleituak dira.

JOLASEN TXOKOA FAMILIAN ERAKUSKETA-ARETOA

- Azaroaren 18tik abenduaren 18ra. 17:00etatik 20:30era
- Gure erakusketa-aretoa familiak lasai egoteko toki bat izanen da udazkeneko arratsalde hotzetan.
- Txoko bat izanen dugu lasaitzeko, margotzeko edo mahai-jokoetan aritzeko.
- Materialak eskura izanen dituzue, baina, nahi baduzue, ekarri erabiltzen ez dituzuen ipuin edo jokoak eta partekatu besteekin.
- 8 urtera arteko haurrak heldu baten laguntzaz etorriko dira beti.

LIBURUTEGIKO TAILERRAK

IZENA EMATEKO EPEA:
IRAILAREN 21ETIK 25ERA
LIBURUTEGIAN
(TELEFONOZ EDO AURREZ AURRE)



IDAZTEN HASTEKO TAILERRA

Irakaslea: MAR PÉREZ
OSTEGUN BAT HILEAN, 19:30ETIK 20:30ERA. URRIAREN 22AN HASIKO DA.

- Zuretzat idazten al duzu? Zergatik ez zure ingurukoentzat? Posible da mugak desagerraraztea.
- Tailer honetan, beste pauso bat eman nahi dugu: besteekin partekatzeko, ikasteko eta konektatzeko idatziko dugu.
- Ausartu zaitetz idaztera. Ausartu zaitetz partekatzera. Ausartu zaitetz sortzeko gai zaren guztiaz jabetzera.

INGELESEZKO IRAKURLE-KLUBA – READING CLUB

Irakaslea: LINDY LOGAN
HILEKO 2. OSTEGUNEAN, 19:00ETATIK 20:00ETARA. URRIAREN 8AN HASIKO DA.

- Ingeleseaz irakurtzea eta hitz egitea gustatzen bazaizu, hau duzu zure irakurle-klub berria.
- Behar duzun guztia B2 maila eta Lindy proposatuko dizkigun liburuez hitz egiteko gogo da.
- Irakurgaiak formatu elektronikoan banatuko dira.

HITZEN LABORATEGIA


7 URTETIK 11RA ARTEKO HAURRENTZAT. GAZTELANIAZ

Irakaslea: KOKEA
HILEKO 3. OSTEGUNEAN, 17:30ETIK 18:30ERA. URRIAREN 15EAN HASIKO DA.

- Hitzen Laborategia haurrak irakurketarekin zaletzeko proposamen bat da. Hitzen botereaz jabetu, hitzak ikasi, hizkuntzekin jolastu eta beren istorioak sortzen ikasiko dute, modu dibertigarri eta esanguratsuan.

Saio bakoitzaren abiapuntua album ilustratu bat edo haur-liburu bat izanen da. Jardueretan parte hartuz, mundu berriak ezagutu, irudimena piztu eta sormena garatuko dute.

LIBURUTEGIKO JARDUERAK BESTE ALOR BAT-ZUEKIN ELKARLANEAN



6/10 - 18:30

“NOLA EGITEN DEN LIBURU BAT”. HELDUENTZAT

Hitzaldia Editargi Editoreen
Elkartearen eskutik

20/10

ZIENTZIA-TAILERRAK GAZTELANIAZ

“Estazio meteorologikoa”
17:00 6 URTETIK 9RA
18:30 10 URTETIK 12RA

21/10 - 17:30

ZIENTZIA-TAILERRA EUSKARAZ

Zientzia zure esku!”
7 URTETIK 10ERA

10/28 17:30

MAR BENEGASEN TAILERRA

“Jarriko diogu bibotea?”
0 Urtetik 6ra heldu baten
laguntzaz

5/11 - 18:30

HITZALDI MIKOLOGIKOA: “IBARREKO PERRETXIKOAK”

Helduentzat.

17/11 - 18:30

HITZALDIA: “FOSILEN MEZUA”

Helduentzat.

18/11 - 18:00

IPUIN KONTAKETA “MARGO-IPUINAK”

Ines Bengoarekin 5 urtetik
gorako haurrentzat

20/11

TENSEGRITATE TAILERRA LEGO PIEZEKIN

Gaztelaniaz, 16:30etik 18:00etara
Euskaraz, 18:15etik 19:45era

26/11 - 17:00

TAILERRA: “COLLAGE-A FAMILIAN”

Materialak berrerabiltzea.

JARDUEREI ETA IZENA EMATEKO MODUEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO
UDAL-WEBGUNEAN → WWW.ARANGUREN.ES

EKITALDIETARA JOATEKO OHARRAK



→ **PUNTUALITASUNA.** Iritsi saioa hasi baino lehen, ikuskizuna bere orduan hasi ahal izateko, eta artistei eta gainerako ikusleei zor zaien errespetua erakusteko. Behin emanaldia hasita, ez da aretorea sartzen utziko, publikoa eta artistak kontuan hartuta.



→ **HOTS ETA ARGİ SEINALEAK.** Itzali zure sakelako telefonoa aretoan sartzean. Gozatu unea, merezi baitu.



→ **JAN-EDANAK.** Ez da zilegi auditorioan elikagaiak eta edariak kontsumitzea.



→ **ADIN GOMENDATUAK.** Kultur Etxera haurrekin etortzen bazara, izan beti kontuan zer adin dauden gomendatuak ikuskizunerako. Horrela, jende guztiak gehiago eta hobeki gozatuko du.



LEIHATILA:

- > Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.
 - > Ekitaldiaren egunean: saioa hasi baino 30 minutu lehenago.
 - > Gehienez, 6 sarrera buruko familiendako ikuskizunetan
 - > Gehienez, 4 sarrera buruko gazte eta helduendako ikuskizunetan
- *Familia ugariak, familia-unitateko pertsona-kopurua gehienez, eta euro bateko deskontua urtarilaren 1etik aurrera familia-ikuskizunen sarreretan.



→ **UMETXOAK.** Umetxo batekin joaten bazara, haren adina edozein delarik ere, edukiera kontuengatik bere sarrera izan beharko du auditorioan sartzeko, legeak halaxe aginduta. Gainera, segurtasun arloko arazoak direla medio, haur aulkitxoak edo gurditxoak ekartzen baduzu, eraikineko atondoan utzi beharko duzu.



→ **DIRUA ITZULTZEA.** Kultur Etxeak ez du sarreraren dirua itzuliko, salbu ekitaldia bertan behera uzten bada edo programazioan aldaketak izan badira. Inguruabarrek beharturik, iragarritako data, ordutegi, programa eta interpreteak aldatzen ahalko dira. Halaxe gertatzen bada, aurrez zuregana joko dugu edozein aldaketaren berri emateko.



→ **HOBETO ENTZUTEKO.** Aretoak entzungailu-sistema bat du, soinuaren seinale anplifikatua jasotzeko.

Edozein galdera edo iradokizunetarako, ez izan zalantzarik eta jo ezazu beti Kultur Etxeko langileengana, pozik egingen baitizugu arreta.



+INFO: 948 29 14 89
www.aranguren.es/eu/kultura/